

BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honen bitartez, gaur egungo gizartean identifikatutako gabeziari aurre egiteko bururatu zaigun konponbidearen nondik-norakoak azalduko ditugu, ahalik eta zehaztasun maila handienarekin, kontzeptu guztiak argi eta garbi gelditu daitezten.


Aurkezpenean azaldu dugun moduan, gaur egun, zenbait arazo direla medio, jende ugari arropa erosi gabe gelditzen da eta ezinbestekoa iruditzen zaigu tendentzi hau aldatzea. Horretarako, Trynow sortzea erabaki dugu, hau da, aplikazio berri bat non arropa soinean nola gelditzen zaigun ikusteko aukera ematen baitigu arropa probatu gabe. Hortaz, arroparen alorrean zenbait bezeroren ongizatea bermatu ahal izango dugu. Jarraian, aplikazio berritzaile honen ezaugarri nagusiak azalduko ditugu.

Nola funtzionatuko du Trynow-k? Bada, lehenik eta behin, aipatzekoa da aplikazio hau etxetik nahiz dendetatik bertatik erabil daitekeela. Trynow-ren bitartez, jantzi guztiak nola gelditzen zaizkigun ikusi ahal izango ditugu, hau da, fisikoki probatu ordez, aplikazioak simulatu ahal izango du geure gorputzean nola ikusiko genukeen gustatu zaigun kamiseta hori. Hori lortzeko prozesuak ez du konplexutasunik. Lehenengo gauza

aplikazioan zeure neurriak sartzea izango da. Horren ostean, gustatu zaizun jantzia hartu, etiketan duen erreferentzia aplikazioarekin eskaneatu, eta horri probatu nahi duzun jantzia

mugikorreko kameran azalduko da, pertsona mugikorrean bertan agertuko da jantzia gainean txertatuz, simulazio bat izango balitz bezala. Aipatzekoa da, gainera, hasiera batean M neurria aukeratu baduzu eta aplikazioak zeure neurriekin bat ez datorrela ikusiz gero, Trynow-k berak aholkatuko dizu beste neurri bat egokiagoa izango litzatekeela.

Prozesua etxetik gauzatu nahi izanez gero, Qr kodea eskaneatu beharrean, aukeratutako jantziaren erreferentziaren kodea aplikazioan idatzi eta kito, zure mugikorraren kameraren aurrean ikusi ahal izango duzu zeure burua arropa berri horrekin!



Trynow irekitzean, aukeratu ditugun marka guztiak, hau da, INDITEX, Nike, Adidas edota Puma aterako lirateke eta bertan bezeroak askatasuna izango luke zer arropa mota nahi duen probatu aukeratzeko.

Aplikazioaren prezioari dagokionez, hasiera batean, 0,99€tan finkatuko dugu aplikazioaren prezioa. Trynow iOS eta Android sistema operatiboentzat egongo da eskuragarri, eta sistema guztientzat prezio berdina finkatuko dugu. Esan beharra dago lehen hilabetea dohainik izango dela bezero guztientzat. Hori gutxi balitz, behin aplikazioa eskuratu duten horiek bi aukera izango dituzte: Trynow iragarkiekin eskuratzea edota hauek gabe. Iragarkirik gabe nahi izanez gero, hileroko 0,25€ ordaindu beharko ditu bezero bakoitzak.

Geure proiektuak azken zertzelada batzuk jasan behar ditu oraindik, eta argi dago berrikuntzak egongo direla etengabe, baina oraingoan, Trynow multinazional jakin batzuetara egongo da bideratua, konkretuki INDITEX multinazionalera eta Nike, Adidas eta Puma kirol enpresei. Denda hauek aukeratzearren arrazoia argia da. Gure aburuz, multinazional eta enpresa hauetan ekoizten diren materialak erabat fidagarriak dira, hau da, premiazko kalitatea dutela deritzogu. Gainera, zenbait estilo eta motatako jantziak daude eskuragarri, eta hori geure bezeroentzat oso garrantzitsua iruditzen zaigu, aukera ugari edukitzeak milaka aukera ematen baitizkie, eta hori funtsezkoa da guretzat, aukeratzen dituzten arropa horiekin eroso sentitzea baita helburua.

Proiektuak funtzionatuz gero, beste zenbait merkatalgoetara irekitzeko aukera ere planteatu genezake etorkizun batean. Oraindik ezin dezakegu ziurtatu hau gauzatuko dugun ala ez, urte batean zehar aukeratutako enpresekin lan egiten igaroko gara eta horrek bere fruituak emango balitu, etorkizunera begira planteatzeko proiektua litzateke. Halaber, oraingoan, apaingarriak eta oinetakoak alde batera utziko ditugu eta arropan besterik ez da zentratuko geure aplikazioaren funtzionamendua.

Azkenik, aipatu beharra dago Trynow-k erabiltzaile guztien segurtasuna bermatuko duela, hackerrak eta birusak saihesten lagunduko gaituzten zenbait enpresekin harremanetan jarri baikara, beraz, lasaitasun osoz erabiltzeko aplikazioa da gurea!

Aurreko guztia horrela izanik, gogo eta motibazio handiz jardungo gara lanean proiektua ondo atera dadin eta gure helburua bete dadin.

